



## Abian da txotx denboraldia Andoainen ere

- **Herriko bi sagardotegiek prest dituzte euren instalakuntzak sagardoaz gozatu nahi duten herritarrentzat.**
- **Andoni Alvarez alkateak txotx denboraldiaz disfrutatzeko deialdia egin du, beti ere, errespetuz jokatzuz.**

**Andoainen, 24-01-19.-** Urtarrilaren 19arekin batera zabaldu da txotx denboraldia Andoainen. Herriko bi sagardotegiek, Mizpiradi eta Gaztañaga, prest dituzten euren instalakuntzak sagardoaz eta bertako jakiez disfrutatzera joateko.

Hainbat astez luzatuko da txotx denboraldia; horregatik, horretaz gozatzeko deia luzatu du Andoni Alvarez alkateak bertara egindako bisitetan. Aurtengo uzta aurrekoa baino oparagoa izan dela, eta alde horretatik, “arretaz eta mimoz zaildutako sagardoa” dela nabarmendu nahi du alkateak.

Sagardotegiek giro berezia jartzen duten aldian murgilduta, horretaz gozatu, baina aldi berean, “errespetuz jokatzeko deia” ere egin du alkateak. “Lanean ari direnekiko, sagardotegiaz eta sagardoaz disfrutatzera gerturatzen den herritar guztiekiko... finean, norbanako guztiekiko miresmen eta errespetuz jokatzeko deia egiten dugu”, esan du. Halaber, urteko egun guztietan bezala, Andoainek ez duela eraso sexista, matxista edo homofoborik onartuko gehitu du.